

AMETSA EGIA BIHURTUKO OTE DA?

Itxaso Munarriz, 12 urte

Idiazabal

Ibilaldi luzearen ondorioz, nekatuta nago, leher eginda, bizitzeko itsaropenik gabe. Zeruan, borrokaren nahigabeak entzuten ditut. Nekatuta nago, ezin dut nire gorputzarekin, gorputzak pisatu egi-ten dit, leherketa hots eta guzti, lo hartu dut eta amets gozo eta eder baten barruan murgildu naiz.

Ni, Shahid izena duen neskato bat naiz. 12 urte ditut eta Afganistaneko herri txiki, txiro batean, bizi naiz. Oso une latzak igarotzen ari naiz, ez ni bakarrik, nire lurralde osoa eta hemengo biztanle guztiak, Une latzak dira benetan, baina nik neure buruari, behin eta berriz esaten diot hau: Esperantza, ilusioa, ametsak...

Ez dira inoiz galdu behar.

Egun hauetako batean,

Bete ahal izan daitezen.

Eguzkiaren lehen printzekin esnatu naiz. Zerua isilik dago, lurra lo dago, Nabaritu dezakedan gauza bakarra, txokolatearen usain gozo eta ona da. Ama sukaldean da, gosaria dagoeneko mahai gainean dago. Aita eserita, egunkaria irakurtzen ari da. Nire anaiak lo daude. Salto batean ohetik jeiki eta neure eguneroko arropa jantzi dut; narra-tsa dago, eskale bat bera ere txukunago joaten da. Baina besterik ez, eta eskaleen printzesa naizela pentsatzen dut; hala, indioilarra baino dotoreago,

sukaldeko bidea hartu dut. Bidea ez da oso luzea, etxea oso txikia da eta.

Egun hauek direla eta, nire amaren aurpegian nabarmendu nezakeen gauza bakarra, sufimendu itxura eta nekearena izaten zen. Baina gaur goizean, alai dago; haren aupegi ederrean ez da betikoa irudikatzen, gaur irribarre ezti bat dago; pozik nago nire amaren aurpegia ikusirik; hitz hauek ateratzen zaizkit nire mahaspasa bihotzetik:

Ama, zu pozik ikusirik,

Negar malkoak ateratzen zaizkit begietatik.

Nire begiek, noraezean dabilen txalupatxo baten antza dute.

Zure aurpegian dizdira ikusirik

Nere bihotza pozik jartzen da

Alai, irribartsu.

Eta nire begiak berriz negarti.

Mahaian eseri naiz; nire etxea oraindik zutik dgo, ez beste batzuk bezala. Amak gosaria eskaini dit, nik, neure tripa zorriei ezin eutsirik, buruarekin baiezkoa esan diot.

Gosaltzen ari naizen bitartean, nire anaiak esnatu dira eta, ezpainetan irribarre eder bat dutelarik, mahaian eseri dira. Isiltasuna da nagusi sukaldean, denok isilik gaude, kanpoan dagoen jendea ere bai.

Egoera honek urduri jarri nau, baina nire urduritasunak segituan uxatu dira, amak irribarre bat egin ondoren. Gosaria amaitu eta aitak eskolara bidali nau, honek erabat harritu nau, jende askoren iritiz, emakumea izateagatik, ikasketa gabeak

izan behar dugu. Baina ezin zaio aitari kontrarik egin, bestela zigorra izaten baita.

Horrela, nire anaien eskolako koaderno bakarra hartu, arkatza eta, atetik atera baino lehen, buruan zapia jartzen hasi naiz, baina bapatean amak zapia eskuetatik kendu, arauak aldatu egin direla eta hemendik aurrera ez dudala buruan zapirik erabili beharko esan dit.

Nik, honekin harriturik, eskolarako bidea hartu dut. Bidea naiko luzea da eta neketsua, baina eskolara joateko gogo izugarriak ditut, eta errazagoa egiten zait bidea.

Bidean neure lagun ugarirekin egin dut topo eta beraiek ere eskolara zihoazten. Azkenean iritsi gara. Barrura sartu eta gure tokietan eseri gara. Ordu batzuk geroago...

Oraintxe atera naiz, eta etxera noa, ama zain izango bait. Etxera iritsi eta sukaldea jasotzen eta etxea txukuntzen hasi naiz; lan nazkante honek sudur puntaraino nauka. Baina muturra itxi eta irribarre faltsu batekin etxe guztiko hautsak jasotzen segi behar. Nire anaiek duten aurpegia, haien gauza guztiak etxetik zehar dabilta, eta ni, haien morroi bezala, dena jasotzen; hau dena nire aitarren eskutik ikasi dute.

Bapatean, aitak, etxeko atetik sartu eta erratza kendu dit. Nik, mugimendu hau ikusirik, eskuak aurpegian jarri ditut, babesteko ahaleginak eginez. Badator zartateko bat, pentsatu dut, ez da lehena izango eta. Baina ez, erratza hartu eta lurrera bota du; ikara zainetara nola sartzen zitzaidan ere

nabarmendu nezakeen une horretan, baina, besok zabaldu eta niregana hurbildu da eta, bizkarretik heldu eta besarkada handi bat eman dit; ni harriturik, baina eskertu diot hune hori, oso ondo sentitu bainaiz, babestuta bezala. Une horretan hau pentsatu dut:

– Hau ezin da egia izan. Ametsa izango da; errealtatean, hau ezin baita gertatu.

Baina ez, nire burak ez du egia sinetsi nahi. Baina, badakit egia ezin da dena arrosa kolorekoa izan. Badakit, onena irauten duena disfrutatu eta aurrera begiratzea da; hauxe egingo dut, hauxe.

Aitak esan dit:

– Sahid, zu neska azkarra zara, argia eta polita. Zu zara etxe honetako esperantza puxka bakarra, maite ezazu zure hizkuntza, gure lurraldea, hemengo jendea, dena. Hau izango baita, gure lurraldearen askatasuna lortzeko konponbidea. Orain, utzi erratza hor eta segi kanpora, zure lagunak kanpoan baitaude.

– Hau ezin da egia izan, beste egunetan ezin izaten baitut kalera irten, eta orain, kalera bidaltzen nau, nire aitari zerbait arraroa gertatzen zaio, baita nire amari eta, nire lagunei ere. Jende guztiari; zerbait gertatzen zaio lehen ezinezkoa eta ametsa zirudiena orain egia bihurtzen ari da.

Horrela, kanpora joan naiz eta, nire harridurarako, nire lagun guztiak kalean zebiltzan. Korrika, haiengana joan naiz; bai alai hartu nautela denek. Bapatean, haien irribarre ederra ikusi dut, haien begi marroi distiratsuak; gorputz guztia dardara

baten jarri didate. Niregana etorri eta agurtu egin nau, bai jatorra dela. Alaia, atsegina; ez dago hitzik hura deskribatzeko, erabat zorazuta nago; mutil hori ezin baita niretzat izan. Baina, libre da amestea, ezta?

Arratsalde guztia hari begira pasa dut; bera ere konturatu dela uste dut, baina ez dio axolarik. Orduak azkar baino azkarrago pasa zaizkit eta, ni konturatzerako, etxera joateko ordua zen. Lagu guztiak elkarrekin abiatu gara etxera. Baina onena zera da, urrutien dagoen etxea, Johelena dela, (nire bihotzeko printzea) eta aurreko etxea berriz nirea. Azkenerako geroz eta jende gutxiago ari ginen gelditzen. Bapatean, ni eta hura bakarrik geratu gara. Ni lotsa-lotsa eginda nengoen eta ez nekien zer esan; bapatean berak:

– Sahid, esan dit. Eta nik:

– Bai, Johel. Hark erantzun:

– Zer moduz etxean? Ondo gurasoekin? Lan asko bidaltzen al dizute etxean egiteko?

– Zergatik galdetzen didazu hau?

– Ez, erantzun mesedez.

– Etxean ondo, gurasoekin primeran, inoiz baino hobeto, eta etxeko lanetan, berriz, oso lan gutxi. Arratsalde guztia egitekorik gabe. Eta zu?

– Niri ere berdin. Lehen ere etxean ez nuen gauza handirik egiten, baina aitari lagundu beharra izaten nuen. Orain, berriz, arratsaldea libre.

– Beno, Johel, etxera joan beharrean nago.

– Bai, Sahid. Ni ere bai.

– Bai, agur.

Etxera iritsi naiz, sartu, eta nire familia guztia sukaldean zegoen. Aitari baina amari eta anaiei, muxu eman, eta aulkian eseri naiz, afaltzeko prest. Amak, afaria mahai gainean jarri, aitak janaria bedeinkatu eta jaten hasi gaitezela esan digu. Oso ona zegoen dena, inoiz baino hobea, behatzak txupatzeko moduan zegoen. Janari hau, maitasunez, goxotasunez egina zegoen eta nire barruak nabaritu du, bai. Amari eskerrak eman afariagatik eta nire logelara joan naiz, neka-neka eginda bainen goen, leher eginda. Egun hau handia izan da niretzat; ez, inoiz ez dut ahaztuko.

Ohe gainean etzan eta egun guztiko gertaera arraroei bueltak ematen eta ematen hasi naiz. Nekatuta nago, nire gorputzak atsedena behar du, baina nire buruak ametsa bukatutako dela uste du eta ez, ez du nahi lokartu. Baina begiak itxi egiten zaizkit eta lo hartu dut. Hurrengo egunean...

esnatu naiz eta triste nago, konturatu bai naiz ametsa amaitu egin dela, eta hasieran bezala izango dela dena. Borroka, jendearen nahigabek...

Sukaldera joan naiz eta han nire gurasoak eta nire anaia aurkitu ditut.

Denak negarrez ari dira: aita, ama, anaiak, denak.

Eta ni, berriz, zer gertatzen den ez dakidala. Hau da nahigabea.

Ama, niregana hurbildu, eta esan dit:

– Sahid, gaur egun handia da emakume guztiontzat.

– Zergatik, ama?

– Gaurtik aurrera ez duzu zapi handi hori eraman beharrik; harauak aldatu egin baitira. Emakumeok libre gara, askatasuna dugu.

Pozik gaude denok, baina oraindik ez da amaitu borroka, ez. Lehen pausoa eman dugu; ondoren beste guztiak emango baitugu; gogor jarrita lortu baitezakegu gure lurraldea borrokatik, miseriatik eta arazo guztietatik askatzea. Ea, nik egindako ametsa betetzen den: askatasuna, ikasketak, Johel... Bai, egunen batean lortuko dugu, bai lortuko dugu gure ametsak egia bihurtzea.

Lorelei